

## ELAren 30 urte: instituzioetatik karrikara



### Sindikalgintzaren historia

*Gauzak horrela  
(ere) izan ziren*

German Kortabarria  
Pamiela, 2015

GERMAN KORTABARRIA 1975ean hasi zen ELAren zerbitzu juridikoe-tan eta 2007ra arte sindikatuaren martxa barru-barrutik ezagutzeko parada eman dioten karguetan ibili da, izan Batzorde Eragilean edota Idazkari Nagusiaren alboko gisa. Baina hau ez da memoria pertsonalen liburu bat, izenburuaren *ere* horrek hori pentsarazten digun arren.

Hau, gure historia hurbilari buruzko lana da, ELAren sindikalgintzatik abiatu eta Euskal Herriko 30 urtetako gertaeren kronika bat. Agian, apur bat ikuspegi korporatibistarekin dago idatzia, egileak berak ez du ezkututzen “etxearen edertasunaz harroa eta akatsekin onbera” dela bere begirada. Esaterako, nolabaiteko autokritika falta suma liteke

Frankismo garaiko ELAren “izotzaldiaz”, Josu Chuecak sindikatuaren mendeurrenean ARGIAN (2.285. zenbakia) erabilitako hitza hartzen badugu.

1976ko Eibarko kongresurainoko pausoak eta hortik aurrerako metamorfosia ezin hobeto azal-tzen zaizkigu. Sindikatu tradizional instituzio zalea izatetik, XXI. mendeko lan-hitzarmeneta patrola-nalaren deabru izatera igaro da ELA. 80ko hamar-kadan, afiliazio sare eta kuota sistema sendo bate-kin, egitura autonomikoetan egonkor eta “bere gauzetan” ibili zen; gero palazioetako kontuetan sartu zen arlo sozialeko eskumenak lortu nahian. Baina akituta bukatu zuen, 90eko hamarkadan prestakuntza jarraituaren negoziazioarekin ikusi zen bezala.

Hortik aurrera, 1998ko Gernikako ekitaldiko Jose Elorrietaren “Estatutua hil da” famaturainoko eta ondorengo gorabeherak jakin nahi dituenak, hau du liburua. LABekiko harremanak, ETAren esku-hartzea, Ibarretxe plana edota Caballitoko greba luzea, dena idazkera ulergarri dago kontatua. Eta eskertzen dira liburuaren amaierako ia 1.200 azal-pen-oharrak, baita izenen aurkibidea ere. ■

**Urko Apaolaza Avila**

## Beti zorretan bizi naiz mundu honetan

OCCUPY WALL STREETEKO kide ezagunetako bat den Graeberrek munduko zorra azaltzen digu mate-matikaz zero dakien honek ulertzeko moduan: adibide soilekin, jakin mina pizten duten gertakizun historikoekin eta irakurketari abaila hartzen uzten dion idazkera soltean.

“Zorrrak ordaindu behar dira” gure oinarri mora-letako bat den hori planteatuz hasiko du liburua. Zorrrak ordaindu behar izateak sortzen dituen injus-tiziak ez baitzaizkigu moralki hain onargarri izango. Bi urtez bizi izan zen Madagaskar jarriko du adibi-de: Frantziaren zordun omen den Madagaskarren 10.000 herritar hil ziren Malariak jota. Eltxoa kontrolatuta mantentzeko programa ez zen diru gehiegi kostatzen, baina Nazioarteko Diru Funtsak behar-tutako murrizketen ondorioz bertan behera geratu zen. Zaila da argumentatzen 10.000 pertsonaren heriotzak zentzua duela, Citibank-ek arduragabeki emandako maileguan galerarik izan ez dezan, eta nahiz eta, egia esan, bankuaren balantzean deus gutxi balio duen diru kopuru horrek.

Liburuak adibideekin azaltzen duenez, humanita-tearen historiako aldi gehienetan pertsona gehienak zordun direla esan izan da. Baina erne! Zorrenen his-

toria bezain z a h a r r a k omen dira z o r p e t z e a kontrolatzeko arauak eta zorrrak barkat-zeko mugimendu iraul-tzaile eta legeak.

Adibidez, eliza katolikoak betida-nik debekatu izan zuen dirua interes truke uztea. Eta hebrear tradizioan 50 urtero ospa-tzen zen Jubileua: urte horretan zor guztiak auto-matikoki kitoan geratzen ziren. Horrek erabat eragi-tzen zuen salerosketetan.

Ezagutu beharreko historia eta azalpenak dakartza liburuak, Graeberrek salatzen duenez, “zorrra zer den ez ulertzea, bere adierak duen malgutasuna, horixe da zorrrak duen indarraren oinarria”. Frantsesez eta gaz-telaniaz ere irakur daiteke, Les liens qui libèrent eta Ariel editorialetan; euskaraz, oraingoz ez. ■

**Estitxu Eizagirre Kerejeta**

### Ekonomia

*Debt: the first  
5000 years*  
David Graeber.  
Melville, 2011

